

Don Jose Migel, gure eredu

D. Jose Migel Barandiarani omenaldi bat egingo zaio Ataunen, Ekainaren 12tik 21era.

Omenaldi honen berri emateko eskatu zaigu. "Euskal Herri osoaren gogo bat beteko dugulakoan Joxe Migel Barandiarani, gizon jakintsu, herriko eta zintzoari omenaldi bat antolatzen hasia: gara, eta honen programa ia osaturik dugu", aditzera emateko gure eskutuz.

Badute Ataundarrekin sena. Badakite Euskal Herri osoaren gogo dela omenaldi hau egitea. Ez dago zalantzarik, gure ustez. Ondo merzeria du. Ataungo San Gregorion jaioa dugu orain dela larogaita iru urte. Gerotik ez dugu uste geldirik ene asko igaroko edo denbora asko alferrik galduko zuenik. Bere izaera eta bere lan ikaragarri, bikain, sakon eta zehatzagatik Euskal Herrian eta munduan ezaguna, maiatua eta aintzakotzat artua dugu.

Hauze dio gure Don Jose Migelegatik Luis de Castresanak: "Ezagutzen ditugun obretarik neurtzen badugu, ene ustez, bizi diren euskaldunetatik aundiena Don Jose Migel Barandiaran dugu. Arrigarria da adineko apaiz honek etolorari eta arkeolari bezala egin duen lana. Ez dut uste behin ere ordainduko diogunik Euskal Herriagatik egin duen gutzia".

Julio Caro Barojak, berriz, "Eusko-Folklore"an argitaraturiko lanak gorapatzu: "Eman argitaratzen diren lan gutxiak dira irakurgarriak beren zehaztasun, zentzu eta sakontasunagatik baina batipat gizon honenak".

Etengabe lanean ari den gizona dugu Don Jose Migel. Euskal Herriko zantzurik eta aztarnarik zaharrenak biltzen eta aztertzen dihara aspertzeko eta nekatzeko. Euskal Kondaira-aurreko ezar, arlandu, lur, marrazki, margo, ipuin, sineskeria, askazia eta abar bildu eta aztertu ditu.

Gorputzez txiki, baina izaitez aundi den gizon hau ezaguna dut gure arpe, mendi eta baserriek. Eta ezaguna dute munduko jakintsuek, Unibertsidadeek eta aldizkariak.

Baina ez dezagun uste, gutxi bezalako maixu eta jakintsu honek ezereen maixukeriak eta jakintsu aierik duenik. Hauze da gure ustez aundien eta arrigarrien batez ere gaurok gironan. Bi itz ikasi ordurako dena dakigulakoan gabiltza arropuzturik. "Hau honela da, hori ez da honela" diogu zalantzarik gabe noiznahi. Honelako gutxi entzungo diogu Don Jose Migeli: "hortaz ezer ez dakigu, hortaz ez dago ezer garbirik, hori honelatsu izan daiteke, hori oraingoz, nere ustez, beste zantzurik aurkitzen ez dugun bitartean honela da".

Maixukeriaz eta dogmakiak bezalako gure gizarte hontan honelako ahoberokeriarik gabeko maixu dugu Don Jose Migel. Eta hori, bizieta osoan ikusten, mitaten, aztertzen eta sakontzen jardun den gaietan. Beste alorretan, berriz, maixu direniet entzuten dakienean. Ez da ibiliko ez dakienez gauzarik asmatzen eta esaten. Asko dakienez bakarrik daki gutxi dakiela. Gutxi dakiela dakian jakintsu aundi hoietako dugu Don Jose Migel.

Badaki ongi berak ez dakizkian gauza asko dagoela munduan. Badaki berak ez dakizkian gauza asko dakian jakintsu ere badela munduan. Hau da gure ustez gizon honen beste alderdi arrigarri bat. Ez da sartzien alferriko etxalbidetan. Ez da zipozkerietan ibiltzen. Ez da ika-mikako gizona. Ez du gaurrengungo petrakierak eta setakeriak zikindu eta kutsatu. Beronek esana omen da eta berari dagokio honako hau: "Guk adinean sartuok ez dugu txikiakien sartu behar, guk ikustez, ikastez eta eskarmentuz dakigun hau eman behar diegu gasteer".

Inor gutxi ezagutzen dugu gure artean bi gaitz hauekorekin batek jo nabea: edo maixukeriaz edo zipokeriaz. Don Jose Migel dugu aje hoietakoren batek jo gabeko gizona.

Horregatik artzen dugu gure eruduztat, bere lan luze-zabalen sakontasun eta zehaztasunagatik, bere zabaltasun eta apaltasunagatik.

Euskaldunon eredu eta maixu honen omenaldia antolatzen digute ataundarrekin. Gizon ospetsu honen gorazarrez egingo dira bertan jaialdi hauek: "itzaldia, aurren eguna, bertsoariak, abeslariak, dantzari taldeak, txistulariak, euskal arte, hau da pintura eta eskulturen erakusketa, euskal disko eta liburuen azoka, erri meza, trikititxak eta abar".

Gora gure Don Jose Migel.

LOKAMUTS

Epela zen giroa. Eta kukua entzuten maite-deia zabal zedin belardietan. Eta haize-balak, zururumurru leuan igarokorretan, zuhaitzen hosto berrien arteak itzal zituzten.

Aldare argitsuak nikuz nitzan bazterretan, ugari, ezin ugariago, bazterrak oro aldarez mukuru. Eta giza-tuturru antz ikus nezan, ilartari ibilki: more, gorri, berde, hori, urdin, ezerezetik ezereza geldidugoi beilari. Eta mila organoren soinu sakratuek urra ziztaten eskuldeak. Baina gorantz orroako aipatzen zena, ez zedin inon ager.

Eta gurutzarraitua ikus nezan: eta, bere sasoinik hoberean, bertsoetan mintza zekidan harrigarriro. Eta hau esan ziezadan goratik:

«Heldu duk eguna, adiskide, eta badiakiat. Kaliza edan gabe ez diagoke irtenbiderik; eta gaztetan deitu ninduenak bezalaxe edanen diat nik ere. Dena eman, ez parte bat soilki. Enekin ez, baina ni gabe: horra hor gizonari eskain dakiokkeen kalizarik garratzena. Hozituen hasi den udaberri eder hor nahil niak dastatu eta utxiatu; baina ez diat dastatuko, are gutxiago utxiatuko. Betor, halere, kaliza mingotsa! Isil bedi ene ahoa hileta eta zuena inoiz librori mintza ahal dadinatz. Ezeta bedi ene bizia osoki, zuek inoiz zeron molda ahal dezazuetz. Bihotzen erditik maitatu zirenitik mendit eta zelai berde hauek; erraitetarik, bakarrik geldituko zaretzen zuek hirurok! Bihotzez zuek gutxiok, isilarok nekakideok oro. Berharrezkoa duk, ordea, betrikoko isil nadin, eta betrikoko urrun nakizuen. Agur t'erd! Harren bazka naitenene, bizi izan nauena piztuko duk».

Eta horrela mintzatu zenean, bele urdin talde kondagaitz bat ingurari zekion; eta garrasi bildurgarri bat entzun niezaien; eta hain maitte genuena, bere gerria bi esku ez itasit hiltzen zuelarik, sinetsi ezinezko moduan makur zedin, ezipainen lurrean muin egin arte.

Eta kukua eta kirkirrak isil zitezene eskualdean.

Eta haren garrasi erdiragari hura ez zen eteten; eta, haren gerrietik bezala, odolzoko iturriak jalki zekizkidan neure begietatik. Eta bezalaz talde gaitz hura inguru zekidan, eta azaldu ezinezko ikarar her nintzan. Eta tutturru urdinek eta gorriek barre zegiten.

Eta oraino gurutzarra bizirik zelarrik, haren errai beroak erazuten eta jaten has zitezene belatzarrak. Eta ikusarri izugarri hura ezin jasunik, atzekaldera itzul nezan neure begirada. Baina haren oiñu larrikeriak hel zitezene orduan ene belarrietara. Eta ilara luzetan aldare apaindetara hurbiltzen zirenek, tutturru kan zezaten burutik; eta denak barrez ari zirela ikus nezan.

Horrelakorik ikusi duenak ez du nehoiz ahantziko.

Eta beleek, gorri eta urdin nahasketan zalapartatsuan, algaraz xukatzen zuten haren odola. Eta goragaleak har nintzan, eta txori zantarrak uxatzen saia nendin. Ezin neure besoi eragin, ordea; eta beleek osoki jan zezaten gorputza.

Eta hamar kanatako belatza goiri bat hurbil zekidan, eta ene bi begiak eruz ziztan mokokada bakarrak batez. «Alu izer zeri hori! esan nezan, baina ez ez zedin entzun; eta izurtirik iratzar nendin.

Ene maingidietan eta burukoan ez zegoden odol aztarnarik, ez makro zehadurarik batera. Hortzak karraskan nuduzkan, hiltzak itoa ituzar, eta amas-hestuka leihoira nendin. Eta oka egin nezan azken behazun arrastoak ere bota arte.

Ederra zen gau isila, eta lehen oilarriteak entzun ahal zitezkeen urrungo baserrietan.

«Belatzarrak nagusi bazterretan —esan nezan— eta arkumeak belabzaka. Hik prestatu duan egunentia hortxe ageri duk Ekaldean. Baina hi gabe diatorkek; eta hik, gizona horrek, ez duk ikusiko!». Eta negar zotinak eta oihartzun harrigarriak entzun nitzan bazter gutzietan. Eta Jainkoa madarika nezan.

Argituz zozan goiztiria; eta bapatean, mendiez bestaldetik, ostepaitzen kanta ozena entzun nezan:

«Ez gal gure odol beroa!

Bizi bedi gure Xiberoa!»

Eta gau azkengabean lehenengo aldiz isur zitezen malkoak oparo ene masailetan beheara.

Eta bozkarioz beta nendin. Eta ene delibaramendua azkar zedin:

«il naiago dot ikusi baño»

Eta hire irudia iratxeki nezan gelako horman; eta hortxe diagog,

ene birauen eta deliberoen orogarri. Eta hortxe diagokek tinko ni bizi naizeno, gu gutxiok bizi garenen, hi haizen bihia uzta bihurtzen deno.

Eta elkar gintezen irudiaren inguruan. Eta tutturru urdinak eta gorriak, ilara azkengabean, amil genitikan malkorretan beheara. Eta erroiek, bele beltzek eta putreek jan zitzen haiei honakinen hondakinak; eta haien izenak berak suntsi zitezene lurpean.

Eta kukua entzun nezan urrunean.

LARRESORO

INGLATERRAKO TXAPELKETA

Filme hura ikusi nuela badira urte batzuk. Nere aurrean gurasoak beren hamabi-hamalu urteko semearekin. Gerrakoa zen filma berra. Hamaita gizaeseme hiltzen ikusi genuen. Mutikoak ere lasai ikusten zituen hainbeste heriotza. Zaldia hiltzen ikusitakoan larritu zen. Zeharo harririk haurre esan zuen gogor samar: «begira zaldi bat hil dute».

Ez zen itxura denez ordurarte hil zituzten gizon, emakume, gazte, zahar eta umeengatik harritu. Baina zaldia hiltzen ikusitakoan bizi harririk eta txunditurik geratu zen, arunt minberaturik. Ume horren gizatutasa zegoela zeharo zapuzturik esan dezakegu. Lasai hartzen zuen gizonen hilketa. Ohiurik zegoen hortara. Baina ez zegoen zaldiak hiltzen ikusten ohitua.

Telebistak eta egunerokoek diotenez gertakizun xeberre bat gertatu da joan den astean.

Inglatterako Txapelketa jokatzen Londresko Wembley zelain. Beti bezala ekipo bik jokatzen zuten. Baina biak ez ziren maila berdinekoak. Bata lehengo mailakoa eta bestea bigarren mailakoa ziren. Eta hain zuzen bigarren mailakoak irabazi zion lehengo mailakoari. Souderdanduek Leedsri, alegia.

Mundu guztiak zienez lehengo mailakoak irabaziko zuten. Hala zioten bai kritikoek eta bai jendeak. Baina ez zen hala gertatu. Nahiz eta lehengo mailakoak ostikarri onenakin jokatuen.

Eta Inglatteran gertatu dena gure artean gertatu balitz? Esate baterako Barakaldok edo Osasunak Real Madrideri edo Barcelonari irabaziko balio? Hau, gure artean, ezinezkoa dugu. Ez ditekene honelakorik gerta.

Gertaera hortan gauza batzuek harritu gaituzte.

Alde batetik Inglatteran ditekene gauza dela bigarren mailako ekipo batek lehengo mailakoari txapela irabaztea. Gure artean ezinezkoa dena, hain ez dela ezinezko. Halaz gultzir ere Inglatteran ere harritu egin dira, bestalde. Ez zait hain bidexko iruditu. Gizona beti gizon.

Lurralde guztiak hustutzen dira diruaren truke. Diruak bereganatu egiten ditu gizonik trebeekak ere. Eta dirua dela eta bai tubulioi eta bai beste edozetan ere lehenengo, bigarrengo eta hirugarrengo mailakoak sortzen dira. Eta hau tubulioan bezala artean, lanean, agintean... Honela lehengo mailako eta bigarren mailako gizonak sortuz goaz.

Eta behin dibisinoak sortuz gero ez dago inolaz ere bigarren mailakoak lehenengoari irabazterik ez hirugarrengokoak bigarrengoari. Aurreko mailara berehala pasako dute hurrengo mailako norbaitek hobeto jokatzen badu. Laster lehengo mailakoak dirua aginduko diote.

Hauze izango da bidia: dirua, gizonak; dirua gizonak. Izenez berdina dira aurrekoak dirua eta bigarren dirua; aurrekoak gizona eta bigarren gizona. Baina izanaz oso desberdinak dituzte. Gizonak aldatuz badoaz, baita dirua ere aldatuz doa eta espiral batean haunditu.

Ekipo bat osatzen dute lur desberdinetan sortzen diren ostikolarri onenak diruaren truke. Ekiporik onena izanaz diru gehiago irabazten dute. Orduan, diru gehiago goretik, jokalarri hobeak eros di teke.

Diru madarikatua, esan dezake norbaitek. Diruaren aurka jartzea, diruak jokoak egitea da.

Dirua, dirua... zer da dirua? Diruak berez ez du ezer egiten. Diruadunak, dirua daukanak egiten du zer bait.

Gaurregun ezin gara dirurik gabe bizi. Dirua, tresna ekonomiko bat da. Horregatik gauzak dauden bezala utea da diruaren aurka jar teza.

Arazoa sakonagoa da. Gizonak salgai ezin ditekene egon. Alde handia du eguneroko bizitzarako sai neurri haundia edo txikia izan. Bai ne saineurri haundian jarriagatik ere gizona ez ditekene salgai ipini. Gauzak bakarrik saltzen dira. Gizona ez ditekene sal gauza bihurtu gabe.

Dirua beharrezkoa dugun tresna bat dugu. Beraz ez ginteke diruaren aurka jarri, saltzaren aurka baizik. Gizona salgai jartzearen aurka, alegia.

Eta ez da ezer salduko eroserik ez bada. Eroslea menperatzeko, berriz, diruaren jabeago zabaldu beharko dugu. Denok diruaren jabe garenean inork ez du bere bururik salduko. Herriak ere ez dira hustuko.

Egun hartan lehengo mailako ekipoak bigarren mailakoari jokatuko dio.

Baina egun hori ez da berez guregana etorriko. Ekarri egin beharko dugu. Gu saiatu garelarik gertatu da hori. Bitartean diruaren jabeak lurrak eta herriak hustuzten joango dira bai giza-aldetik eta bai gizonak lortutako gauzen aldetik.

ARANEGI

Zeruko ARGIA

Zuzenalaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Domostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDÉ SARIA:
Barruan 300 pezeta
Korreo batasuntako errietan 350 pezeta
Aztzerietako beste errietan 370 pezeta
Aldez Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRIURIA
D. L.: N.A. 80-1963

EGUN EGUNEKOA

LANGILE BATEN HERIOTZA

Lankide guztiekiko maitagarri eta lanean ezin trebeago, Gasteizko lantegi batean egiten zuen lan Mikelek. Duela bi urte, itsuski bota zuten, beste askorekin batera. Igaz, hileru ematen zioten ordaina ukatu egin zioten tupustean. «Nereak egin dut Nereak egin dut», esaten omen zue nerregian, eta Aste Santuko goiz nabar batez hil zen neska eman den emazte negartsua ondoan zuela.

Zer izkribatu duzu hilagirian osagile horrek? Ondoko dakikezu zergatik hil zaitgun Mikel. Ala hori ez duzuia ikasi?

Daniel Ibagorti

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

UGARTE

Urbieta, 66 DONOSTIA